

DANELE SARRIUGARTE



Danele Sarriugarte Mochales (Elgoibar, 1989)

Itzulpengintza eta Interpretazioan lizentziatua da EHU/UPVtik, Euskal Herriko pentsamendu kritikoari buruzko ikasketak egin ditu UEUn eta literatura konparatua eta literaturaren teoriari buruzko masterra Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan. 2014ko martxoan eleberri bat eman zuen argitara, Igartza bekaren eskutik: *Erraiak* (Elkar). Itzulpengintzaren alorrean (blog hau kudeatzeaz gain), Judith Butler filosofo estatubatuarren artikulu bat itzuli du ingelesetik, *Genero-ariketak* (Edo!, 2013) liburu kolektiborako. Bi hilean behin liburu-iruzkinak argitaratzen ditu Noticias taldeko Ortzadar gehigarrian eta astean behin zutabea idazten du Berriako Larrepetit sailean. Gaur egun Elgoibarren bizi da eta lan ordaindu bila dabil.

elearazi

zabal bideak eta aireak gure hizkuntzak har dezan arnas

Nor gara

Ardi galduak gara. Ez artalderik aurkitzen ez dugulako, ez beltzak garelako. Ez dugu artaldean ibiltzea maite, baina horrek ez du inor espezial egiten, jabetzen gara. Halere, plurala gara, bi. Nor bere nahi eta sekretuekin, nor bere ilusio eta beldurrekin. Zerbaitek lotzen gaitu, ordea, eta hain da lotura hori indartsua non nahita ere, ezin izan baitiogu muzin egin. Itzulpenak du gu biok elkartzearen errua, eta haren bekatuen ondorio da, baita ere, blog hau. Danele eta Garazi deitzen gaituzte batzuek, eta beste hamaika izendapen ditugun arren, horiek ekarri nahi ditugu hona. Izan ere, ongi hasi nahi dugu.

Lotsagabekeriak nahi gabe ere etortzen dira.

Hasierako horman diogun bezala, itzulpena, hausnarketa eta sorkuntza izanen ditugu ardatz. Horrek ere ez gaitu espezial egiten, badira baliabideak alor horietako bakoitza ederki jorratzen dituztenak, badakigu. Geurekoiak gara, ordea, eta guk aukeratzen ditugunak jaso nahi ditugu, interesgarritzat ditugun testuak euskaratu eta itzulpenari buruzko hausnarketak plazaratu. Ez gatoz inoren edo ezeren ordeko. Ezta iruzkin profesionalak eta erreferentziaz jositako tesiak aurkeztera. Horretarako bada gu baino hobeki prestatuak jende andana. Itzulpengintza diziplina artean baino ez dugu ulertzen, harremanean, horregatik komunitate anitz eta zabal horretan gure alea jarri nahi dugu, guzia idatzita omen dagoen honetan ikuspuntua eman. Apalkeriarik gabe, ordea. Bilaketak, gogoetak eta kezkek aurkeztu nahi ditugu, gureak bakarrik ez direlakoan, itzulpengintzan hasiberriak garen heinean eta horren neurrian.

Hau da, hasi aurretik ere badakigu noiz edo noiz hanka sartuko dugula. Lotsatu egingen gara idatzitako zerbaitengatik edo emanen diguten egurragatik. Gabeziak eta ahuldadeak agerian utziko ditugula. Baina guri bost. Horiek identifikatzeko eta garaitzeko tresna ere izan nahi du blog honek. Ikasteko eta irakasteko. Erortzeko eta altxatzeko. Horretarako, esku oro, bere ekarpen, aholku eta kritikekin, ongi etorria izanen da. Gure aldetik, esan behar dugu gogotsu ekin diogula proiektuari, eta konpromisoa hartzen dugula atalak elikatzeke eta egunez egun zerbait txukuna osatzeko. Hitzekin jolastea maite dugu, eta txoko honetan horiek partekatzea, sortzea, bortxatzea eta erabiltzea plazera izanen da. Baina ez dugu bakarrik egin nahi, elearaztea baita helburuetako bat. Irakurleari elea eragin nahi diogu, solas, eztabaida, edo delako formatuan.

Atea jo besterik ez du bertara sartu nahi duen orok. Baliteke berehalakoan ez izatea, baina saiatuko gara hona bidalitakoak prestutasunez erantzuten: elearazi@hotmail.com.

Gauaren muturrean, 2012ko martxoan

Akordatzen naiz (I)

Akordatzen naiz Elgoibarrek 90ko hamarkadan Europako HIES tasa altuenetarikoa izan zuela.

Akordatzen naiz ez ginela egundo eliza ondoko eskaileretatik jaisten, “drogadituak” bertan zeudelako.

Akordatzen naiz sei urte genituenean M-ren aita asko mehetu zela eta gero hil egin zela.

Akordatzen naiz Gatzagako aldapaz igande iluntzeetan eta Uribarri-Gamboako ur-azalaren distiraz ostiral eguerdietan, AP-1aren aurretik.

Akordatzen naiz Antzar Eguneko gauean beltzek portua kiskali zutela eta kaleak apurto zituztela eta Gaizka eta ni korrika joan ginela herrikoen hondartzatik udatiarrenera.

Akordatzen naiz S-k pilula bat hartu behar izan zuela aukeratu ez zuen umekia kanporatzeko eta I, aldiz, ezin izan zela erditu agudoegi munduratu nahian sabelaldean hil zitzaion alabatxoaz.

Sendagileek erauzi ziotela metalezko lanabes esterilizatuekin.

Akordatzen naiz ezagutu zintudan egunaz.

Akordatzen naiz 17 urterekin eta Edinburgon, B-ek alua jan nahi izan zidanean hankak itxi nizkiola, uste nuelako hori zela egitea zegokidana. Akordatzen naiz gau berean aldatu nuela iritziz.

Akordatzen naiz, lehenagotik jakin banekien arren, euskalduna izatearen kontzientzia lehendabizikoz Cuencan hartu nuela 12 urterekin eta zuria izatearena, aldiz, AEBetara iristean 21ekin.

Akordatzen naiz emakumea naizela beti jakin izan dudala eta beti jakinarazi izan didatela, subliminalki edo argi eta garbi; eta sistematikoki.

Akordatzen naiz “Instinto Básico” ikusi genuenean I-k galdegin zidala: Zuk ere nabaritzen dituzu kilimak aluan?

Akordatzen naiz 15 urte genituenean mutilak etengabe masturbatzen zirela edo etengabe masturbazioaz mintzo zirela eta gu ez.

Ahaztu ezin ditudanez akordatzen naiz.

Akordatzen naiz udako trenean guardia zibilak sartzen zirenean dokumentazio eske sortzen zitzaidan panikoaz, armei nien erabateko beldurraz. Oraindik hor dirau, sarriegietan.

Akordatzen naiz Scottek esan zidala: “Birjintasuna hamabi urterekin galdu nuen eta ez zen neuk gura nuelako izan”.

Akordatzen naiz liburu bat usaindu nuen estreinakoaz.

Akordatzen naiz astearte goiz batean Lina etorri zela gure eskolara eta kolonbiarra zela; jolasorduan guztiok egon ginela berari begira, animalia ezezagun eta bitxiei bezala.

Ostegunez akordatzen naiz.

Akordatzen naiz kutxa ikusi arte ez nuela aitonaren heriotza sinetsi.

Akordatzen naiz “ez dut sekula gehiago edango”-z. Behin baino gehiagotan.

Akordatzen naiz begirada hartaz.

Akordatzen naiz hoztasun klinikoz erabiltzen ninduela biharamunetan.

Akordatzen naiz txikitan Lekeitiorako bidean botaka egiteko gelditzen ginen bihurguneaz. Ia bidaiaro.

Akordatzen naiz okela jateari uztea erabaki nuen une zehatzaz, ia bestela bezala gertatu zela, eta hala ere, aurreikusitakoa baino galdera inpertinente eta buruhauste askoz gehiago eragin dizkidala.

Akordatzen naiz sekulako grazia egiten ziotela nire komentarioek.

Akordatzen naiz esan zidala: “pentsa zenbat jende pasatu den sukalde honetatik eta zenbat egoeratan, eta zu izan zara banko horretara igota dantza egin duen bakarra”.

Akordatzen naiz ikaragarri berezia nintzela sentiarazten zidala.

Akordatzen naiz bortxaketaren berri izan ostean sentitutako amorruaz. Eta mendeku-goseaz. Gehiegitan.

Akordatzen naiz beti nahi izaten nuela gauzak lortzea bat-batean, berehala, jada. Bestela interesa galtzen nuela.

Akordatzen naiz bakarrik bidaiatzeagatik ausarta nintzela esaten zidatela, baina niri ez zitzaidala ausardia iruditzen, baizik eta beste inor aguantatu behar ez izatearen erosotasuna.

Akordatzen naiz Elgoibarko zapatu arratsaldeetan garai batean ezagututako lagun minez. Gaur egun nonbait topatzen ditudanean beste bizitza batetakoak iruditzen zaizkidala.

Akordatzen naiz ahizpa eta biok txikiagoak ginenean eta kanpoan hotz egiten zuenean, amak berogailuan ipintzen zituela gure barruko arropa eta galtzerdiak, altxatu eta janzteko orduan epel-epel egon zitezen.

Ipuin erotiko aldra bat “Esku hori!” lanean



Izenburu iradokitzaile honen azpian aurkeztu dute gaur goizean, Bilboko Elkar Megadendan, Basauriko Euskarabila elkarteak antolatutako Ipuin erotikoen lehiaketatik sortutako eta Txalaparta argitaletxeak Literotura sailean atunduriko liburua. Prentsaurrekoan, Edorta Jimenez idazlea, Mikel Soto editorea, Karmele Albisu Basauriko Euskarabila elkarteko kidea eta Itziar Abad eta Danele Sarriugarte ipuingileak bildu dira.

Bertan jakin dugun Euskarabila euskaldunon elkarteak lehiaketa antolatzeari utziko diola. Hala adierazi du behintzat, bertako kidea den Karmele Albisuk: “1996an, ipuin erotikoen lehiaketa antolatzen hasi ginen, gazteen hizkuntza erabilerari eta irakurzaletasunari begira eraginkor izan zitekeelakoan. Hasierako asmo haren emaitza 17 lehiaketa eta hiru liburu izan dira. Bitarte horretan, ehunka ipuin, idazle izan nahi zuen gazte, idazle eta gerora idazle ezagun egin direnak izan dira lehiaketan partaide.

2012ko honen ondoren, Euskarabila elkartearen beraren etorkizuna berraztertzen ari garen honetan, lehiaketan ere etena egitea erabaki dugu. Horretarako une egokia zela uste izan dugu: orain arteko edizio guztietako irabazleen ipuinak argitaratuta daude eta tiraderetan ez zaigu inorenik gordeta gelditzen. Ez dugu esaten epe baten barruan berrekingo ez diogunik, baina ezta egingo dugunik ere. (...) Gazte askorentzat idazten hasteko, trebatzeko, euren burua neurtzeko eta ezagutzera emateko aukera bat izan dela uste dugu eta hala adierazi izan digu hainbatek. Ipuin erotikoak izatea erabaki genuenean ere, ordura arte askorik landu gabea eta gazteentzat erakargarria izango zelakoan, asmatu genuela uste dugu.

Gaur, beraz, agur esaten diogu lehiaketari. Ez goaz penaturik, ordea, asebeteta baizik, gure ekarpen txoa egin dugulakoan eta liburu eder bat esku artean: *Esku hori!*”

Liburuaren hasieran ere, aurreko urteetako irabazleak, ipuinen tituluak eta epai-mahaikideen izenak ere agertzen dira.

Gaur aurkeztu den liburu morean parte hartu duten egileak honakoak izan dira: Itziar Abad, Alaitz Andreu, Estitxu Arozana, Karmele Arrieta, Eneritz Dueso, Iratxe Esnaola, Imanol Epelde, Alvaro Iribarren, Miren Juaristi, Dani Martirena, Aitor Monge, Txema Perez, Alvaro Rabelli, Danele Sarriugarte, Josu Unzueta. “15 idazle, 8 emakumezko eta 4 gizon” esan du Mundakako idazleak. Hitzaurrea Edorta Jimenez monsieur-en eskutik etorri da, eta *esku* hitza gaketzat hartuta idatzi du modu bikainean.

Ipuin erotiko aldra bat bildurik duzue liburu honetan. Irakurri eta gozatu!

Genero-ariketak



Genero-ariketak

Feminismoaren subjektuak

Genero-ariketak / askoren artean / Edo!, 2013

Ez da normala Danele Sarriugarte / *Deia*, 2013-10-26

Kritika hau ez da kritika normal bat, ezin du izan, liburu hau berau ez baita liburu normal bat, ezpada gure jendartea markatuko duen mugarri bat. Txoko honetan estreina idazten dudan egunerako, beraz, ezinezkoa zitzaidan liburu hau ez zen beste edozein obra aukeratzea, jakin badakidan arren aise egoki diezadaketela autobonbolariaren etiketa, hain eskarlata gurean; izan ere, (#NorbaitekEsanBeharZuenHortazHobeNikEgitea) nik neuk euskaratu dut Judith Butlerren artikulu bat bildumarako. Hala ere ez dut uste eremu labainean nabilenik hemen, nire ekarpena mugatua eta partikularra izan zelako eta liburu ia osatuta zegoelarik egin nuelako.

Hori argi utzita, berriz diot: liburu hau ez da normala, eta esamolde jakin hori erabili nahi dut, hori baita zenbait alorretan askatasuna hertsatzeko erabiltzen den arma eraginkorrenetako haatik ezin sotilagoetako bat, bigarren pertsonan adierazita: *zu ez zara normala*; zenbat aldiz izan da iltzatua liburuak akorduan dituen ikusezinen azaletan? Ez, liburu hau ez da normala, bazen garaia. Gure herriko tradizio feministaren indarra antzemanezina zen euskarazko apalategietan, eta *Genero-ariketak* gabezia hori estaltzeko urrats bat da. Isa Castillo Etxano eta Iratxe Retolaza apailatzaileek liburu atalen antolamenduan hiru pausotako bilakaera irudikatu nahi izan dute, teoria feministak zergatik eta zertarako sortu diren ulertzeko ezinbestekoa: gorputza, ispilua, pentsamendua. Hasteko, hor dago gorputz ez-normala, ez-onargarria, ez-*younameit*, guk geuk markatutako muga zurrunen kontra bizitzen saiatzen, liburuan islatuta: *superwoman* lirain eta gizon alfen eredu ideala (eta faltsua) zorrozki eraitsia (Virginie Despentes); gela bat norberarena lortzeko borroka, eta ohartarazpena, zulo fisikoa bezain garrantzizkoa baita buru barruan gordetzea norberarentzat espazio aske bat, besteei orduka baino aloka ez dakiekeena (Itziar Ziga), *drag king* tailerren bitartez gorputza eraldatzearen iraultza (Ainhoa Güemes).

Hor dago ispilua, gero, errepresentazioaren ikurretan ikur, geure gorputzaz pentsatzeko haurtzaroan igarotako lehenengo ate: posizio ikusezinenak feminismoaren subjektuan txertatzearen garrantzia — bereziki argigarria putaren posizioaz egiten den zehaztapena — (Medeak); gizon-emakume dualismoa leherrarazteko oihua (manifestu transfeminista); komunaren arkitektura desnaturalizatua (Beatriz Preciado); frankismo garaiko kasuen berreskuratzea (Raquel (Lucas) Platero).

Hor dago pentsamendua, senti eta nabaritutakoak analizatzeko lanabes: gorputz politiko feministen bideak (Mari Luz Esteban), *queer* teoriaren sorrera-testuingurua (Javier Sáez), *queer* pentsamenduaren hastapenak (Judith Butler).

Hor dago hori dena, eta askoz gehiago, orri-arte hau erreminta-kutxa bat baita, iradokitzen dizkigun ideiek gure etorkizuneko eztabaidak elikatuko dituzten heinean. Hizkuntzaren aldetik ere bada baliabide-emaile, bukaeran glosategi bat osatu baitu Amaia Alvarez Uriak, dagoeneko ari dena fruituak ematen (Kattalin Minerren proposamena: *queer*=zernahi). Ez, liburu hau ez da liburu normal bat. Bada, ordea, irakurgai hausnarrarazle barne-kontraesan-azaleratzaile ezin aproposago bat, guztiok garen zera ez-normal horientzat.

argia

Danele Sarriugarte, idazle eta itzultzailea: "Gero eta lausoago ikusten dut sortzearen eta itzultzearen arteko muga"

[Garbine Ubeda Goikoetxea](#)

2013-05-24

Literaturiak ekitaldi ugari proposatuko ditu hiru egunez, maiatzaren 31tik ekainaren 2ra bitartean. Igandeko menuko plater nagusia, kasura, mahaiaren bueltan eskainiko da, 11:00etatik hasita. *Euskarazko itzulpengintzaren erronkak gaur egun* izenburupean antolatu den solasaldiak euskal literaturaren beharriaz zelan erantzun beharko litzaiekeen argitzea izango du xede. Parte-hartzaileak hautatzeko garaian, aspaldion sortu diren argitaletxeak izan dituzte gogoan, Danele Sarriugarte antolatzaileak argitu digunez, "eredu guretzat berri batean oinarritzen direlako, eta bereziki itzulpengintzan zentratu direlako". Hala, Iñigo Roque itzultzailea, Edo! argitaletxearen izenean, Joxemari Sestorain Cénlit-Denonartean-eko kidea eta EIZIEko partaideren bat eseriko dituzte mahaiaren bueltan.

Mamitzeko zenbait ildo proposatuko dizkie Danele Sarriugartek, mahai-inguruaren gidaria ere izango den aldetik. Lehenik eta behin, itzulpengintzaren aldeko apustu tinkoa egin duten hiru erakundeon bilakaeraz eta iritziaz galdegingo die. Bigarren puntu gisa, hauen aldean, bestela diharduten argitaletxeak hartuko dituzte mintzagai; esan nahi baita, euskal literatur produktzioa babestearren, itzulpenik kontuan hartu ez dutenak. Itzulpengintzaren inguruko aurreiritziei ere helduko zaie gero. Besteak beste, literatura kultua besterik ez euskaratu izana egotzi izan baitzaio urtetan. Horrenbestez, best-sellerrei heldzea konponbidea ote den, itzulgaia arazo ote den edo bestelako faktorerik ba ote dagoen ere aztertuko dute. Azkenik, garai ekonomiko latza eta sare sozialak ere mahairatuko dira.

Solasaldiak izan lezakeen interesa ikusirik, zenbait galdera luzatu dizkiogu Danele Sarriugarteri:

Itzultzailea eta idazlea zara zeu ere. Zure ustez, zein neurri izan beharko luke itzulpengintzak euskal literaturaren produktzioan?

Bi sorkuntza motak, euskaraz idatzitako literatura eta euskarara itzulitakoa, zentzuz uztartzea beharrezkoa eta aberasgarria da. Ez nuke jakingo zehazki proportziotan neurtzen, hala ere, produktzioaren beraren aldetik egun dugun egoera nahiko ona dela iruditzen zait, orain arte izan den onenetariko. Dena den, kopuru aldetik bainoago, uste dut aldaketak itzulpenarekiko jarreran behar duela egon, alegia, gero eta lausoago ikusten dut sortzearen eta itzultzearen arteko muga, zer puntutaraino ez den euskarazko sorkuntza euskarara itzulitako obra bat..

Sare sozialei egundoko garrantzia ematen diozu, [elearazi.org](#) bloga kudeatzen duzu. Zer garrantzi ematen diezu hedatzeko moldeoi mahai-inguruan planteatu dituzun hausnarketei dagokienez?

Azken hamarkadotan, euskarako itzulpengintzaren kalitateari eta ikusgarritasunari dagokionez, aurrerapauso handiak eman dira jende askoren lanari esker. Ez dut uste hobekuntza hori inork ukatuko duenik. Hala ere, egin diren azterketek oraindik mugarik badela erakusten dute, badirela irakurle goarengana iristeko oztopoak, aurreiritziak izan edo beste kontu batzuk izan.

Galdera bota nahi diet mahaikoei, ea sare sozialek eta hedabideek muga hori hausten lagun dezaket.

Konparazio baterako, EIZIEk [31 eskutik](#) bloga abiatu du orain dela gutxi, eta arrakasta itzela lortzen ari da. Bide hori jorratzen jarraitzeko aukerez jardun nahi dut.

Zer ordorio aterako da Literaturiako mahai-inguruan, zure ustez?

Badirudi garaiotan debekatuta dagoela halakorik esatea, baina ondorio positiboak aterako direla uste dut, hau da, itzulpengintzak bidea urratu behar duela oraindik, eta horretarako badela jende gogotsua. Oztupo batzuk atzean utzi ditugu dagoeneko. Beste batzuei erantzuteko unea dugu orain. Garaia ez da samurrena, hori argi dago, eta agian itxura baikorregia eman dezaket, baina inportantea da ez etsitzea.

Ez dakit mahai-inguruak zehazki norantz joko duen, baina gaurko erronkei alternatibak emateko proposamenak planteatzea da nire helburua, horri buruzko eztabaida eta hausnarketa sortzea, aurrera egin dezagun, eta ahal dela indarrez eta ilusioz.

Danele Sarriugarte: "**Kezkatzen ninduten gai batzuk kanporatu nahi nituen Erraiak eleberrian**"

Astezkena, 02 Apirila 2014

Danele Sarriugartek *Erraiak* (Elkar, 2014) bere lehen liburua plazaratu berri du, 2012an Igartza literatur-sorkuntzarako beka irabazi ostean.

Unai Elorriagak, Karmele Jaiok edo Uxue Alberdik, besteak beste, idazle gazteei bultzatzeko sortutako sari hau jaso dute iraganean. Gazte elgoibartarra itzultzaile gisa dihardu egun, baina honako hau ez da izan literaturan egin duen lehendabiziko murgilketa, ipuin bat argitaratu baitzuen *Esku hori!* (Txalaparta, 2012) bilduman. Horrekin batera, BloGazte lehiaketa irabazi zuen Elearazi.org blogaren egilea da Garazi Arrularekin batera.

Erraiak eleberriak bikote haustura mingarri bat du abiapuntu. Errazagoa al da istorio bat eraikitzea zorigaitz batetik abiatuta?

Abiapuntu bat, aitzakia bat izatea beti da lagungarria istorio bat kontatzeko, eta *Erraiak* bezalako narrazio baten kasuan, zeinak hari mordoa baititu eta trama nahiko lausoa, ba are gehiago. Helduleku bat behar duzu hasteko, kontatzeko beharra oinarritzen duen zerbait. Aitzakia horrek ez du zertan zorigaiztokoa izan... baina bueno, kasu honetan istorioa den istorioa izanda berri txar bat hobeto egokitzen zitzaien, poz bat baino.

Kasu honetan emakumezko baten ikuspuntua plazaratzen duzu soilik eta bakarrizketa erabili duzu istorio hau kontatzeko. Zergatik egin duzu partziala izateko hautua?

Barren hustuketarako proposena horixe iruditzen zitzaidalako, amorru-leherketa edo obsesioen kontaketa baten erdi-erdian gaudenean sarritan ez diegu jaramonik egiten besteen ahotsei edo ez ditugu baliozkotzat jotzen. Narratzailea, behintzat, pertsona-mota horietako bat da.

Antxiñe Mendizabal Elkarreko editorearen esanetan, "hatza zaurian sartu eta sentsazio guztiak muturrera eramaten ditu" Erraiakeleberriak. Irakurlearen barrunbeak mugitzea eta kontzientzia astintzea izan duzu helburu?

Ez nuke esango hain helburu zabalak nituenik. Kezkatzen ninduten gai batzuk kanporatu nahi nituen eta ahalik eta ondoen egin nahi nuen. Gero, noski, jendeari barrenak mugitzen badizkio edo kontzientziak astintzen baditu ba hainbat hobeto.

Bikote harremanak arakatzeaz gain, ze gai, zeharka bada ere, jorratzen dituzu nobelan?

Ba harremanak, oro har, senideekin, adiskideekin... Emakumeon egoerak gaur eta hemen, alkoholaren kontsumoa Euskal Herrian, hogeitapikodunen bizi baldintzak eta bizitza-mota...

Hala eta guztiz ere, umore eta ironia zertzeladak ere aurkituko ditugu lan honetan, ezta?

Bai, irakurri duten gehienek hala diote, sarri egin dutela irribarre eta haiei egin behar zaie kasu. Ni saiatu nintzen umorea txertatzen baina azkenean ez dakizu lortu duzun ala ez; hainbeste aldiz berrirakurri dut testua ezen dagoeneko dena topikoa iruditzen zaidan, monotonoa egiten zait.

Hasiera batean, liburuaren izenburua *Mamuk* izan zen baina gero aldatzea erabaki zenuen. Zergatik?

Bueno, hasiera-hasieran proiektuarentzat izenburu bat hautatu nuenean ez nekien zehazki zelan mamituko zen nire hastapeneko asmoa, noraino iritsiko ziren lehen 15-20 orri haiek. Testua osatzen joan ahala ikusi nuen apur bat urruntzen joan zela mamuen kontzeptutik eta nik kontzeptu hura justifikatzeko aukeratua nuen aiputik (Miren Agur Meaberen poema batekoa). Editoreek izenburua aldatzea proposatu zidaten eta hasiera batean pereza eman zidan arren *Erraiak* bururatu zitzaidanean garbi ikusi nuen hobeto egokitzen zitzaiola azken emaitzari.

Erraiak sortzeko prozesua luzea izan da, izan ere, 2012ko irailean nobelaren proiektuak Igartza saria irabazi zuen eta 2014ko udaberrian ikusi du argia. Nolakoa izan da sortze-prozesua? Zein oztopo topatu dituzu bidean?

Bueno, urte eta erdi ez zait hain tarte luzea iruditzen eleberri bat idazteko. Nik 2013ko irail inguruan eman nuen itxiztat lana, gero azken bertzio horri zuzenketak-eta egin dizkiogu, eta azken-azkena 2014ko hasieran entregatu nuen. Hortik aurrera edizio-lanak izan dira. Nahiko prozesu gozagarria izan da, gorabeherak izan dira, noski, baina orokorrean oso oroitzapen gozoa daukat. Denbora eta toki erosoak izan ditut, ingurukoek lagundu didate...

Itzultzailea ere bazara. Zer da zailagoa, beste baten hitzak itzultzea ala norberarenak paperera eramatea?


Ez dakit kuantitatiboki neur daitekeen... Topikoa eman dezake, baina jardun bakoitzak berezitasun eta zailtasun propioak ditu, sarritan antzeko gauzetan trabatzen zaren arren, batean eta bestean. Itzulpen-jarduna bera ere ez da beti berbera, testua interesgarria den, maitasunez egiten duzun ala lanean egokitu zaizulako... faktore asko daude. Esango nuke, oro har eta momentuz, gehiago disfrutatzen dudala idazten itzultzen baino.

Bigarren liburu bat idazteko ideiarik badabilkizu buruan?

Idazten segitzeko asmoa dut, baina une honetan ez daukat ideia zehatzik buruan.

Zer dauka eskuartean egun Danele Sarriugartek?

Literaturaren Teoria eta Literatura Konparatua masterra egiten ari naiz eta master amaierako lana da, oraintxe bertan, nire proiektu nagusia.



Erraiak, Danele Sarriugarte Mochales: Bikote haustura mingarri bat du abiapuntu eleberriak; emakumezko baten kontakizuna bakarrik iritsiko zaio, ordea, irakurleari, obsesio bihurtuta. Horregatik, ez ohiko intentsitatez barneratu da idazlea pertsonaiaren barrunbeetan, haren zokorik ezkutuenak, erraiak, agerian utziz, ez bere buruaren ez inoren aurrean biluzteko lotsarik gabe. Aldez aurretiko aurreiritzirik gabeko barne bakarriketa batean murgilduta, protagonistak ordura arteko bere bikote harremanak xehatuko ditu, inoiz utzi ez duten mamuen aurrez aurre jarriz. Narratzaileak egurra banatzen du ezker-eskuin, eta egurra banatzen du bere buruarentzat ere, tonu ironiko nabarmenarekin. Egur ona, sutarako balio duena, esan gabe doa. Danele Sarriugarteren idazkera zorrotzak, irakurlea jartzen du beti jo puntuan, eta emoziozko erantzunak ez ezik, baita zentzumenezkoak ere eragingo dizkio. Kontzientziak astintzeko lehergailu gisa irakur daiteke eleberri hau.

Erraiak / [Danele Sarriugarte](#) / Elkar, 2014

Igartza saria irabazi zuen proiektutik abiatuta Lander Arretxea / *Argia*, 2014-08-03

Liburu bati gerta dakioken okerrena oharkabeen igarotzea bada, tarteka irribarrea piztu, tarteka deseroso sentiarazi, tarteka nork bere burua gorrotarazten duen Danele Sarriugarteren eleberriak ez du inor epel utziko.

Bakarrizketa bizian, bikote haustura batek asaldatutako emakume gazte obsesiboak gordintasun osoz disezionatu eta deseraikitzen ditu bere giza harreman eta kontraesanak —erraiak, azken finean—, halako zorroztasunez non irakurlea ere bere buruari aitortu (nahi) ez dizkion egia horiekin parez pare jartzen duen. Protagonistak sexuaz, botere-harremanez eta jokabide bakoitzaren atzeko zergati ezkutuez egindako gogoetak ziztagarri dira, eta aldi berean iradokitzaile.

Esaldi korapilatsu sarkastikoen narratzailearen izaera eta kontakizunarekin bat egiten dute irakurketa batera tratatu gabe. Are, erritmo biziko bakarrizketak eta hitz errenkada bakoitzaren indarrak begiak paragrafo batetik bestera eramaten ditu ia nahigabe, kontakizunaren egitura ez-lineala konturatzeke jarraitzen den naturaltasun berarekin.

Irakurle bati gerta dakioken onena liburu berberak gozamina, pitzadurak eta galderak eragitea bada, *Erraiak* da uda honetan irakurri behar zenukeena.

Erraiak / [Danele Sarriugarte](#) / Elkar, 2014

Plok-plok-plok Amaia Alvarez Uria / *Argia*, 2014-06-01

Liburu honek, kontrazalean irakur daitekeenez, “bikote haustura mingarri bat du abiapuntu”. Protagonistak barne bakarrizketaren bidez bere pentsamendu eta sentimenduak okada luze batean botako dizkigu orriotara. Gero, botatakoari begiratzuz gero, botere harremanei buruzko hausnarketak topatuko ditugu tarteka, nola familiaren barruan, kuadrilla eta lagunekin, hala herria eta komunitatearekiko norberaren kokapenari dagozkionak. Maitasun erromantikoaren pisuari buruzkoak ere han hemenka egongo dira sakabanatuta, menpekotasun afektiboa eta sexu eta desio jolas eta borrokak. Loturak, kateak, bakardadea eta ihes egiteko beharra. Parral, Zuloa, Berlin, Denver, Beefeater, Toblerone, Nirvana edo Anari ere hor daude. Charles Bukowski ere bai, jakina.

“Hank Txinaski (euskal) emakume (gazte)a balitz?” Galdera hau izan zitekeen kritika honen izenburua, baita liburu honen haria ere. Irakurketa honek gogora ekarri dit Ean duela urte batzuk uztaileko gau batean taberna batean izandako elkarrizketa bat. Nola gustatu ahal zaio Bukowski feminista bati? Nola irakurri ahal ditu feminista batek misogino baten ibilerak eta horrekin gozatu? Nire ustez liburu hau izan daiteke galdera bihurri horri erantzuna emateko saiakera bat, (baita paragrafo honen hasieran botatakoari ere).

Iban Zalduak Uxue Apaolazaren lehen lanaren hitzaurrean zioen (buruz ari naiz) bertan irakur zitekeela zakilak loditu egiten zirela. Danele Sarriugarteren lehen lanaren hasiera aldean ordea, alua bigundu eta umeldu egiten da, eta amaierara hurbiltzean protagonistak dio gozatzen duela bere maitalearen aurpegiari begiratzeari uzkia taladratzen dionean. Kritika honek “Letrak mamituz” izenburua ere izan zezakeen. Euskal emakume idazleak azken urteotan gorputza lehen planora ekartzen ari dira eta Sarriugarteren lanak joera honi ematen dio segida. Erraiak. Bihotzari, gibelari, hesteei, aluari entzuten die protagonistak. “Gorputza da jomuga eta lanabes” irakurri ahal dugu. Mari Luz Estebanek gurera ekarritako subjektu haragiztatuak hitz egiten dio irakurleari. Egokitu zaion rol sozialaren lokarriak agerian utziz doa orriz orri narratzailea, orainaren eta oroitzapenen artean, eta kate horiek apurtu nahian urratutako azalari begira dabilenaren hotsak ditugu irakurgai.

Erraiak / [Danele Sarriugarte](#) / Elkar, 2014

Erraien mintzoa Ibon Egaña / *Deia*, 2014-05-10

Pertsonaia nagusi baten eta haren ahots narratiboaren gainean eraikia da Danele Sarriugarteren lehen eleberria, *Erraiak*. Nobela abiarazteko aitzakia narratiboa, aldiz, bikote-haustura du. Izenik gabeko narratzaileak, hogeitaka urteko neska gazteak, etxera heldu eta bikotekide izandako mutilaren agur-oharra aurkitu du. Horrek abiaraziko du narratzailearen barne-bakarrizketa, bikote-harreman horren sorreraren eta gainbeheraren zein aurretik gazteak izandako harremanen gaineko gogoeta eta disekzioa.

Berlin, Denver, Gasteiz eta sorterriaren artean ibilitako narratzailearen bakarrizketa neurotikoak denboran atzera-aurrerak egingo ditu, orainaldi zentripetu batetik abiatuta, eta bide horretan Z-rekiko harremana, Y-rekikoa edo U-rekiko adiskidantzaren akabera aletuko ditu, ikuspegi eszeptiko, batzuetan ironiko eta anti-erromantiko batetik, Bukowskiren eta Mari Luz Estebanen arteko halako balizko talaia berezitik, gorputza norbere buruaren eta harremanen ezagutzarako bitarteko gisa hartzen duen ikuspegitik. Trebe dabil narrazioaren atzera-aurreretan narratzailea, eraman egiten du irakurlea denboran atzera, berriro ere ezinegonezko orainaldira itzultzeko; tartean, sinesgarriro birsortzen ditu zenbait eszenatoki eta giro, gauekoak eta urbanoak nagusiki.

Hogeita hamar urteak oso urrun ez dituen narratzailearen nortasunaren sorrera dateke eleberriaren gaietako bat, artistaren gaztetako portreta gisakoa; herritik, Berlin eta Denverretik barrena, Gasteiza egindako ibilbidean narratzailearen inguruarekiko aldaketa (lagunekiko, sendiarekiko, mutilekiko) ezagutzen dugu, baina batez ere *artista* identitatearen sorrera. Hala, berezitasunaren eta normaltasunaren arteko dikotomian, konbentzio sozialetatik kanpo baina aldi berean barnean dago protagonista gaztea, eta kontraesan horiek arakatzen ditu egileak. Orobat, idazle eta musikarien aipu ugariak pertsonaiaren artista izaera hori azpimarratzera datoz. Ordea, narratzaileak artistaren pose hori inoiz autoironiaz hartzen badu ere, inpresioa izan dut ironia azalekoak ez duela erabat deusezten posea eleberrian zehar eta horrek urrundu egiten duela pertsonaia eta haren ahotsa irakurlearengandik.

Ahotsa da, dena den, eleberriaren lorpenik eta ezaugarri-markarik esanguratsuenetakoa ziurrenik. Estilo hotza, arrazionala, gordina, bihurria eta aldi berean jolastia, diferentziak diferentzia, Uxue Apaolazarena edo Iratxe Esnaolarena gogora ekar dezakeena. Beldurrik gabe ibili da Sarriugarte sintaxia bihurritzen, gauzei bere izenez deitzen edo hiztegia bera berritzen, aldi berean hoztasun analitiko eta pertsonalitate bakana lortuz. Haatik, eleberriaren hasieran estilo hori narrazioari ongi egokitzen bazaio ere, inpresioa dut oro har estiloaren bortiztasuna eta gordintasuna ez dela kontakizunaren edukiei dagokiena. Alegia, idazkeran bertan dagoen tentsiorik ez dagoela narratzen den horretan (edo neuri behintzat ez zait iritsi) eta, hala, une batzuetan kontakizunari estilo-ariketaren traza hartu diot, estiloa handiegi etorriko balitzaio bezala, gaina hartuko balio bezala kontatu nahi den istorioari. Edonola ere, ahots berri indartsu eta arras pertsonala ekarri du Sarriugartek euskarazko nobelara, oso kontuan hartzekoa inondik ere.

Erraiak / [Danele Sarriugarte](#) / Elkar, 2014

Erraiak Usoa Alberdi Fernandez / *Aizu!*, 2014-05

Azken bikote harremanaren porrota aitzakia, errepassoa ematen die narratzaileak bere buruari zein ingurukoei. Errepaso zinez intimoa, hirugarrenen begiradatik at, eta, ondorioz, ziztatzailea. Bereak eta besteenak zuzitzeko betarik hartu gabe; ankerkeriatik oso gertu, batzuetan, eta bizitzak tarteka eskaintzen duen samurtasunari leku eginda, bestetan.

Askatasuna eta lotsa eza daritzio liburuari, eta umore sarkastiko ordainezinak bustitzen ditu gogoetak. Gerta daitezke mingarriak irakurlearentzat berarentzat, identifikatuta senti daitekeen heinean. Aringarriak ere bai, Euskal Herrian bera bezala bizi eta sentitzen direnak, horiek ere, badirela ohartuta. Kontalariak, nagusiki, bere burua paratzen du aurreiritzien eta hautsa alfonbra pean ezkutatzea maite dutenen suminaren jomuga. Hori bai, jakinaren gainean argi-ilunen eta kontraesanen nortasunari, euskaldunok ere "pairatzen" dugun horri, ahotsa ematen ari zaiola. Eta estiloa. Nork bere buruarekin izaten dituen bakarrizketen anarkia, oroitzapen batetik bestera jauzi egitea, gaiak nahastea, denbora-espazio koordenadei eta narrazio lineal eroso eta zuzenei muzin egitea, barnetik marea zoroa bezala datorrenari, nahita, muga guztiak kentzea. Hori guztia, konplexu eta kortseetatik askaturiko euskararen, biltzen duen edukia bezain pertsonal, ausart eta garaikidean.

Erraiak / [Danele Sarriugarte](#) / Elkar, 2014

Talentuz blaitutako barneak Hasier Rekondo / *Berria*, 2014-04-13

Liburu honen oharretako batean aurkitzen dugun David Foster Wallace-ren *La Broma infinita*-ren gaineko iritzia, espainolezko bertsioan irakurtzen ari da protagonista, ondo baino hobeto egokitzen zaio Danele Sarriugarteren (Elgoibar, 1989) *Erraiak* (Elkar, 2014) lehen eleberri apartari:

“...gutxienez astean behin ausaz aukeratutako orrialde batean zabaldu eta kontakizuna irakurtzeari berrekiteko tentazioari amore emanaz”. Eta ez da gutxi DFW miretsiarekin alderatzea liburuak sortzen duen menpekotasuna, eta, areago, lehen liburuaz ari bagara. Ezbairik gabe urteko liburuaren aurrean egon gaitezke, gainerakoak irakurri gabe hori esateak suposatzen duen atrebentzia, egileak barra-barra erakusten duenarekin pareka daitekeen arren.

Izan ere, XV. Igartza saria jasotako *Erraiak* honetan goi mailako literaturarako talentua besterik ez dugu aurkituko. Berezko talentua norberaren erraiak besteen aurrean gordin-gordinean erakusteko, larregizko gehiegikeria emozionaltan erori gabe. Eta gaiak bazuen gehiegikerietan erortzeko arriskua: Z. izeneko mutil batekiko haustura abiapuntutzat hartuta, gaztaroa zuputzen ari den (literalki eta metaforikoki) emakume baten bakarrizketa digresiboa dugu, letra larriz aurkezten zaizkigun amoranteen gaineko ibilbide formatuan. Narrazio teknika esperimentalak eta kortserik gabeko formak darabiltza inolako beldurrik gabe Sarriugartek; idazle berriari eskatzen zaion lotsagabekeria puntuak nobela kaskartu beharrean, hobetu egiten du. Sarerik gabeko jauzi literarioak bazuen arriskurik, pedantekeriaren amildegian burua haustekoa hain zuzen ere. Liburuaren azken ataleko oharretan, esaterako, badago pedantekeria kutsu ironikorik, baina protagonistaren barne-borrokaren onuran beti ere.

Nolabaiteko pornografia sexual eta emozional baten mugetan barrena, bakarrizketa adiktibo horretan zehar, irakurleak ez du atsedean hartzeko aukera larregirik izango, plok-plok-plok onomatopeiaren lagun, gin-tonic bat prestatzeko eta irakurketari berriro ekiteko ez bada. Emakumezko protagonistaren erraiak ezta egingo dute edozein generotako irakurle beraren barne-frustrazioetan, neo-kostumbrismo txatxu batetik urrunduta. Kontaketa sentimentala baino haratago, urraketa existentzial baten testigantza nihilista da, “gauza jakina da artistei erraiak oparitzen dizkiedala”, urregin baten maisutasunez ehundutako irudi estasiatuez blai: “...edo harreman aske baten parodia txarra besterik ez dela gurea, hondoratuta dagoenetan erabil dezakeen joker afektibo bilakatu nauelako”. Protagonistak ihesbide bakarra aurkituko du, Epikuroren ametsa betetzea: “carpe diem madarikatu horri izterrekin gogor oratzen baitio, ahalik eta sarrien jotzea, bidaiatzea, mozkortzea eta dantzatzea bilakatuz helburu goren”.

Eleberriak ez ditu ezkututzen eragin literarioak zein musikalak (nire gusturako askoz erakargarriagoak lehenak bigarrenak baino, baina gustuak gustu), eta narraziorako lanabes gisa darabiltza egileak: totem bilakatzen da protagonistaren baitan Bukowski-ren aipu gogoangarria (“alferrrik galdutako iluntze bat zure bizitza bakarraren aurkako biolazio larria da”, ingelesetik apetaz nik neuk itzulitakoa), Nietzsche, Pynchon, DFW, Cortazar, Salinger... Heziketa musikalak ere badu lekurik, belaunaldi galdu baten gainekoa ere izan daitekeen “baloi-kanpokeriarik” gabeko kontaketa distiratsuan. Drummondarren “Noiz hasten da gure oraina?” parafraseatuz, Danele Sarriugarteren literatur oraina bere erraiak talentuz blaituz hasi da.

Erraiak / [Danele Sarriugarte](#) / Elkar, 2014

Erraiak agerian Iñigo Basaguren-Duarte / *barnezine.com*, 2014-04-11

Egon Schieleren “Sitting Male” erretratuak ematen digu agurra Danele Sarriugarteren (Elgoibar, 1989) lehen nobelan. Ez da aukera hutsala, obra honetan artista beraren erretratu biluzia aurkezten zaigu eta, modu berean, hurrengo orrietan protagonistaren biluztasun, beldur, amets eta obsesioen lekuko izango gara.

Istorio honetan, protagonista etxera heldu eta ohar bat irakurtzen du non bere bikoteak abandonatzen duela esaten dion. Bere burua amildegi baten aurrean ikusten du eta, obsesioak gidatuta, bere aurreko harremanei errepasoa egiten die, haustura baten ondoren bere buruari ohikoak diren galderak egiten dizkiolarik. Honen ondorioz bere mamu eta deabru guztiei aurrez aurre begiratu behar die. Bikoteez gain, familiak, adiskideek, konbentzio sozialek, bakoitzaren ametsak — bidezidorrean gelditu direnak bereziki— eta kontraesan eternalak lekua izango dute.

Modu honetan, idazleak, berari ez ezik, irakurleoi ere banatzen dizkigu kolpe bortitzak, erraietan min ematen duten horiek. Gizarte harremanak eta sexua —sexu ereduak barne— ez dira libratuko Danele Sarriugarteren dardo zorrotzen ziztadez. Eta ohartarazten zaituztegu, oso zorrotzak direla idazleak gure —euskal— gizarte eta belaunaldi jakin —gaur egun 30 urteren bueltan aurkitzen garenak— baten aurka jaurtitakoak. Ironia eta sarkasmoaren laguntzaz, bere —gure— aurka jotzen du behin eta berriz, zauri sakonak sortuz, mina emanez, baina aldi berean, ezpainetan irribarre tragikomiko bat sortuz.

Kontakizuna lehenengo pertsonan helarazten zaigu, protagonistaren giro obsesiboa areagotzeko propio aukeratua. Hori ikusiko baitugu soilik, haustura batetan alde batek daukan ikuspuntua, bere kontraesan eta ustezko egi borobilekin. Hitzek bisturi baten zehastasunarekin moztuko dute gure azala, behin eta berriz gure erraiak agerian utziz. Pop erreferentziaz osatuta datorkigu kontakizuna, baina ez apaingarri moduan, baizik eta istorioari berari eusteko, sentzazioak areagotzeko, kontakizunaren bidaide. Azkenik, liburuaren azkenengo orrietan, hainbat azpioinez osatutako eranskina daukagu, protagonistaren -idazlearen- argibidez eta osagarritz osatua, David Foster Wallacen, kontakizun honetan hainbatetan aipatua izanagatik, *Infinite Jest* (1996) lana gogora ekartzen diguna.

Azken aldiko lanik freskoena iruditu zaigu Danele Sarriugarteren “Erraiak”. Agian bere idazkeragatik, agian lotsagabe egiak aurpegiatzeagatik, agian erraietatik bertatik idazteagatik, agian gure burua hainbatetan isladatuta ikusteagatik... ezin izan ditugu gure begiak hitz, lerro eta orrialdeetatik erraz alden. Ez behintzat liburua osorik irentsi arte.

Zuen erraiei, baita ustelduenei ere, parez pare begiratzeko prest zaudete?

Erraiak / Danele Sarriugarte / Elkar, 2014

Erraiak lehertuz Iraitz Urkulo / *Berton*, 2014-03-30

Danele Sarriugartek (Elgoibar, 1989) XV. Igartza saria irabazitako *Erraiak* izenburua daraman bere lehen liburua argitaratu du: 30 urte betetzeko bidean den izenik gabeko emakume protagonistak Z mutil lagunarekiko haustura sentimentala dela eta abiatzen duen bakarrizketa luzea. Gertakari hori aitzakia hartuta, gogoia iraganera zuzendu eta era askotako harreman pertsonalen inguruan hausnartuko du: bikote harremanak, noizbehinkako sexu harremanak, familia harremanak zein lagun artekoak... Horixe da, funtsean, *Erraiak* eleberriaren argumentua.

Trama gorabehera, forman datza idazlearen proposamen ausart bezain berritzailea. Niaren diskurtsoan erabat murgildurik, narrazioaz lehenengo pertsonan arduratzen den protagonista narratzaileak kontaketa ez-lineal bati ekiten dio; hau da, lanak egitura zatikatua izanik, kapituluak atzera eta aurrerako denbora-jauzien arabera txandaka antolatuta ageri dira.

Gorputz-sentsazioetatik abiatutako diskurtsoa, narrazio emozionala eta kontaketa objektiboagoa modu ezin eraginkorragoan uztartuz, emaitza benetan berezia lortzen du Sarriugartek, irakurleoi unibertso oso pertsonal baten ikuspegi originala, aberatsa eta, aldi berean, gordina (edo guztiz naturala, liburua eskuetan nork duen) eskainiz. Narrazioak pertsonaia nagusiaren pentsamenduzko deriba kontrolatu nolabaitekoan egiten du aurrera; neurosi-krisi betean ere, hitz-jarioa sekula eten gabe; ezarritako lotura bitxien bitartez, sentipen, gertaera, garai edo gai batetik bestera igaroz. Idazle berri honen idazkerari pasioak gainezka egiten dio, baina goxotasunik gabekoa, hainbesteraino non inori tarteka bortitza ere irudi diezaiokeen. Pasioari erritmo bizia lotzen zaio, besteak beste, darabilen puntuazio sistema minimalistaren ondorioz. Zalantza dut, bestalde, kontaketa hasiera-hasieratik tentsio maila gorenari eustearena ez ote den hautu arriskutsuegia, gauza jakina baita intentsitatea, testuan zehar aldatu eta, hortaz, irakurleari noizbehinka atsedean hartzen utzi ezean, kaltegarria izan daitekeela.

Sarriugarteren berezko estiloa darabiltzan euskararen eta sintaxi aberatsean islatzen da batez ere. Pertsonaiaren azalpen guztiak xehetasunetan oinarrituta eraiki direnez, zinez eskertzekoa da idazleak, adierazkortasuna eta espontaneotasun neurtua xede, une bakoitzerako hitz eta esaldi-egitura egokiena txertatzeko ahalegina egin izana. Aitzitik, irakurleoi eskura jartzen digun mimoz aukeratutako lexiko zabal eta zehatz horrekin, esaldien ezohiko luzerarekin bezalaxe, autoreak arrisku handia hartzen du.

Esaterako, esaldi asko korapilatsu xamarrek suertatzen dira eta bigarren irakurketa bat behartzen dute maiz; deskribapen zorrotzegiek, bestetik, irakurlearen parte-hartzeari ateak ixten dizkiote. Zailtasuna da, era berean, testu osoa busti duten kultura garaikideko musika eta literatura erreferentzia ugarietara lekietan akats bakarra; nahiz eta kasu honetan, kutsu intelektualeko testuartekotasuna, oztopo baino gehiago, istorioaren aberasgarri den, nire iritziz.

Eleberriak badu, amaieran, beste berezitasun bat: oharren atala. Aitor dezadan sekulako amorrua ematen didala fikziozko obra batean oharrak topatzeak, onenean irakurle gisa nire interpretazioa bideratu/mugatzeko ahalegina iruditzen zaidalako; okerreanean, aldiz, horien bidez idazlearen egoarekin zerikusi handiagoa izan ohi duten azalpenekin irakurketa kutsatzen/hondatzen dutelako, horretarako baimenik eskatu gabe sikiera. Hau esan eta gero, egiari zor, gehitu dezadan *Erraiak*-en oharrei funtzio berri bat egokitzen zaiela, aurreko bien erabat ezberdina den funtzio ludikoa alegia, oharren inguruko iritzia birpentsatzera eramanez. Narratzailea bera da oharrak kudeatu eta, testu nagusitik kanpo, fikziozko diskurtsoari formatu berri horretan jarraipen ematen diena. Ez edonolako jarraipena gainera, ohar gehienak protagonistaren baitako barne-borrokak eragindako inkohherentziak salatu, interpretazio alternatiboak eskaini eta, oro har, gertakari jakinen gaineko informazioa osatzera baitatortzen.

Inori sexu esplizitua, alkohola edo neurosiak jotako pertsonaiaren mamuak bezalako gaiak errepikatzearen errepikatzeaz, irakurketa astunegia egingo zaio agian. Nik, aldiz, gertaeren gainetik protagonistaren karakterizazio bikaina eta istorioan zeharreko bilakaera nabarmenduko nituzke. Izan ere, konplexutasun handiko eta ñabardura askotako izaera baten jabe irudikatu du Sarriugartek. Inkoherentea, zalantzatia, dramatikoa, patetikoa eta xelebrea batzuetan, baina erabakimen handikoa eta zintzoa beste hainbatetan. Inoiz xalotasunez jokatu arren, onbera xamarra ez dena, ezta gaiztoegia ere. Ironia finez eta umore garratz oso partikular batekin eraso egiteko gai izanda, ez du biluzteko lotsarik agertu eta ahuleziak agerian uzteko beldur. Aitzitik, inguruarekiko eta bere buruarekiko jarrera kritikoa sendoa erakusten du, hori dela ziurrenik haren ezaugarri nabarmenena. Bestela adierazita, fikzioa arautzen duen egiantzaren legearen arabera, pertsonaia erreala sortu du autoreak. Horretan datza, hain zuzen, irakurleengan haserrea, barrea, hunkipena, nazka eta, batez ere, enpatia eragiteko sekretua.

Erraiak eleberria, horretarako asmorik gabe ziurrenik, Y belaunaldiaren lekukotzat jotzea daiteke. Ez baitira alferrik, modu zuzenean zein zeharkakoan, 1985-1990 urte bitartean jaiotako euskal gazteen egungo giroa, egoera sozioekonomikoa, aisialdia, mundu ikuskera, harremanak... islatzen. Ikuspegi hori feminista eta, hortaz, inguratzen duen errealitatearekiko kritikoa, subertsiboa eta, garrantzitsuena dena, eraikitzailea ere bada. Esaterako, bikote harremanak botere norgehiagokekin parekatuz, protagonistaren diskurtsoak genero-rol tradizionalak ezbaian jartzeko ahalmena erakusten du.

Danele Sarriugarteren lehen liburua esku artean lehertzen zaigu; egileak, euskal literaturaren plazara sartzeko, aurretik ibili gabeko bide ausart eta berri bat urratu eta gogoz zapaldu duelako seinale. Izan ere, *Erraiak* lanak kanpoko zein barneko munduak ñabardura txikienetaraino hautemateko eta, horiek baliatuta, ahots oso pertsonal batez eta estilo bortitz eta zorrotzez, baina sentsibiltate harrigarritz aldian berean, literatura sortzeko dohain paregabea duen idazle berri bat ezagutarazten digu.

Erraiak / [Danele Sarriugarte](#) / Elkar, 2014

Erraiak ditut maite Jule Goikoetxea / *Berria*, 2014-09-03

Z-k ez du nire ohiko ohaideen kasik inongo antzik... animaliak eta familiako kideak maite ditu.. bizitza sozial arruntari aurre egiten daki: errenta aitortzea, bazkaria, garbigailua, bizilagunen bilera. Itoginetan ito gabe. Otsanki kokatzen gaitu Danele Sarriugartek *Erraiak* eleberriaren abiapuntuan, zetazko eskultura bat biluzten ari zarenean bezala, gero ahalik eta erresistentzia gutxienarekin urrezko hari luze eta finen bidez haren anatomia zatikatua plazer mutuz josteko intentzioa duen eskuaz.

Makro-gerrak dauden moduan mikro-joera hiltzaileak daudelako eta denbora-pasa ahala honek, horrek, haiek, gure ingurukoek, eta, bereziki, guraso bihurtu berriek duten eskuinera tolesteko joera biologikoa, hau da, kakajario zinez pertsonala, horietako bat delako, eleberriko pertsonaia nagusiak dioen moduan *askatasunera kondenatuta egon arren sekula egingo ez zutela promestu zuten hori zehatz-mehatz egiten dihardutenak, hots, duintasunik gabe zahartzen, desesperatzen, iraganeko eskema lokaztuekin orainean halabeharrez bizirauten saiatzen.*

Izpiritu nekatuez hornitutakoa da pertsonaia nagusia taxutzen duen testuingurua, heldutasuna edo eguneroko auto-konplazentzia errukigabea jasaten dakien testuingurua, protagonista beldurrarekin adostutako zorientasun hertsia horretan bizitzera norabideratzen duena, behin eta berriz, non *plastikozko txupitoea eskaini zuenean niri behatzen zidan arren ipurtzuloa alderik alde zeharkatzen didan herdoildutako burdinazko gurutze ikusezin baina halere ukagaitzagatik izan ez balitz, ez nintzatekeen etxera txintxo-txintxo etorriko*, hartu-eman konbentzionaletan bizirauten jarraitzeko, amaitzear dagoen *ez-singletasun* desiratu baina ez maitatuarekin. Esne-bidearen luzera eta zaporea duten esaldietan ehunduta kontatuko digu autoreak desamodio hau, *Angelica Liddellki eta apur-bat-estua-baina-pertsona-bat-lasai-asko-igarotzeko-bezain-zabala* den pasabideetan barrena.

Zintzoa izateko zintzotasuna asmatzeko abilitadea behar da lehenik, *berezia* izateko normaltasuna fundatu behar aurretik, humanitatearen ohikotasun jasangaitza eta errepikakorra sumatu, ezohikotasunaren tonuak hatzekin estutu, mendeku borroka bizimina gose aseezina behar bezala antolatu, harmonia beti baita krudela, *oraindik ez nuen pentsatzen beharrezkoa izango zela kuadrillaren genozidio osoa; printzipioz ondo zihoalako balkanizazioarekin*; sasi-aukeratutako harmonia barne.

Gure errealitatearen ildo nagusia meta-istorioz konposatutako polifonia da, oin ohar trinko gazi-goza iraungigaitzez osatutako bizimodua eta *erraiak* gordintasun estrategiko horren iragazki egonarriak dira(da), baina normaltasuna gordina izateaz gain, hutsala ere bada, hutsala eta konplexua, zintzotasuna bezala.

Espiral formako esaldi lerdan sutsu erabatekoek osotasunaren metodoa borobiltzen dute, oin oharrek pertsonaiaren pentsamendu jario pausa-gabea ildotzeko teknika estetikoa iltzatzen diote irakurleari malkoetan, barrez lehertutako malkoetan.

Eta erraietan. Erraitean. Erraietan.

Edertasun asaldatua eta harmonia gordina gutxitan baitira ikusgai azal garbi, aratz eta leunetan, testu nagusian, perpaus motz puntu motz puntu motzetako marko ezarri hesituan. Errealitateak beti gainditzen baitu errealitatea harrapatzeko eraikitzen ditugun gailuak. Eta, orduan, zer? Erraiak.

Erraiak / [Danele Sarriugarte](#) / Elkar, 2014

Epopeia onomatopeiko emea Mikel Asurmendi / [argia.com](#), 2014-10-03

“Plok-plok-plok...”. “Tik-tak, tik-tak...”. *Erraiak* narratzen duen istorioa definitzen eta deskribatzen duten soinuak dira. Izenik ezagutzen ez dugun pertsonaia nagusiaren —eta narratzailearen— erraietatik iradokiak. Eta nola?

Aitortu beharrean nago: lehen unean ez nekien nondik heldu nobelari. Narratzailea —egilearen *alter egoa*?— nire alabaren adinekoren “mundukoa” da. Eta dena aitortzera —muturreko adibide baterako—, ni Yon Etxaideren *Joanak joan* edota *Gorrotoa lege* nobelek ekarri ninduten literaturara. Hots, nire literaturaren bidea frankismoak —besteak beste— Euskal Herrian eragindako txikizio moralaz jabetzekoa izan da.

Joanak joan, gorroto-aldiaren osteko literatur egile berriak ernatu dira. Iraganeko gorrotoa herra da orain. Izen gabeko protagonistaren erraiak herraz erauziak kausitu ditut. Berak izenik barik, beste pertsonaiek ia ez dute bisaiarik ageri. Siglak baino ez ote? Z izenekoaren izana, apika, *Zorroaren* moztaroren baitan bila genezake.

Protagonistak Z-rekin apurtu du, eta T eta Y, K eta D, U edota Ö *partenair(e)* berriak aurkitu ditu. Pertsonaia postmoderno horiek aise “gainditu” dituzte —gaituzte— jainkorik gabeko modernook, alajainkoa. *Erraiak*-etako euskaldunak lekutan daude *Orixeren Euskaldunak* eta *Barne-muinetan* poemetakoetatik. Iragan mendeetako —gerra aurreko eta osteko— misogino haien bilobak mintzo dira orain. Eta literaturaren bidez espresatzen direnean, Julio Cortazarren *Rayuela* edota Ramon Saizarbitoriaren *Martutene* nobelekin bidaiatzen dira.

Erraiak-etako pertsonaiek ez dute aberririk, ez dute bederen euren aurrekoek izan zuten “aberiarik”, ez kalterik —*perjuiciorik*, hots— ez aurreiritzirik. Alta, bada, ez dute jainkorik. Hirian hazi eta hezitakoak dira, euren mintzoan ez da itsasorik ez mendirik ageri. Galdu dute esperantza: “Esperantza gaitzenetan gaitzeena da, gizakion sufrimendua luzarazten baitu” (Nietzsche).

Narratzailea itaunka ari zaigu:

Noiz hasten da gure oraina?

Amesterakoan al da?

Erabakia hartzerakoan?

Lehen pausoa ematean?

Lehen pausoa... Lehen pausoa...

Nobela frenetikoa da, eta ez da thrillerra. Hitchcock-en suspenseak ez du zirrara nahikorik sorrarazten pertsonaia hauek durduzarazteko. Calderon de la Barcaren *La vida es sueño* (*Bizitza amets*) eraldatu da. Gure arbasoek ametsak bizi zituzten gauetan bizi dira *Erraiak*-etako pertsonaiok, hauen ametsak gaueko alkoholek —drogek— iradokiak izaki.

Nobelako atalen izenburuetan finkatuta dago protagonistaren denbora: 0, -2, 0, -6, 0, 0, -3, 0, -3, 0, 0 (egunsentia), -1, 0, 01 (biharamuna). Denborak ez du nora jagoitik. Pertsonok denbora —eta espazioa— kontrolatzeko gaitzarekin munduratuak gara, eta obsesio horrek gatibatuta bizi. Denbora kontrolagaitza ez ezik, gaitza da espazioaren kontrola. *Mundua* —espazioa eta denbora— esatean, demagun *egoa* diodala.

Nobelak 63 eranskin ditu. Narratzailea eta protagonista mugatuak dira, bai idazle bai pertsona gisara. Egilea damu da beste gisa batez errenditu ezin izanaz. 14. eta 16. eranskinetan “Egiari zor...” batez gaitzitzen digu, baita bere burua kastigatu ere. Artean, 15.ean: “Ez nuke *arrunt* horrela esan behar, destainaz, ez nuke *bixkor* horrela idatzi behar, erdeinuz...”, diosku. Baina ikasiko du. Nerabearoa iragan berria baita idazlea. 124. orrian horrela dio berriz: “Aitor dut: normala izan nahi nuen”. Aitor du: ez da normala. Idazleak idazle kategoria iristeko “anormala” izan behar baitu. Idazle hau erraietatik ernatzen hasia da. 119. orrian hasten den atal antologikoa lekuko.

Nobela frenetikoa da. Eta eskatologikoa, berbaren bi adieratan:

1.— Joan badoan “gure” munduaren amaiera antzeman dut berean.

2.— Erraietatik idoki ohi zaizkigun usain guztiak iradoki dizkit, sexuarenak barne.

Erraiak / [Danele Sarriugarte](#) / Elkar, 2014

Erraiak Mikel Babiano López de Sabando / [hiritik.net](#), 2014-10-06

Emakume gazte bat bere etxeko ohean esnatu da eta ustezko mutil-lagunaren agur hitzak topatu ditu mahaiaren gainean. Aurkikuntza horren karira emakumeak egingo dituen ekintzak eta hausnarketak darabiltza *Erraiak* liburuan Sarriugartek, bikote harreman heterosexualei eta mendekotasun egoerei buruzko hausnarketak, hain zuzen ere.

Liburuaren paratestuari erreparatuz gero, Egon Schieleren autorretratu topatuko du irakurleak azalean. Margolariaren koadroko biluztasunak iradoki legez, sexuaz eta gorputzaz baliatu da, neurri handi batean, Sarriugarte liburuko pertsonaia nagusiaren erraiak aurkezteko. Horrela, irudi luke gorputza dela gure territorio libre bakarra, norberaren sentimendu eta kezkek azaleratzeko bide bakarra, hala Schieleren nola Sarriugarteren unibertsoan, bederen.

Nire iritziz, idazle elgoibartarraren xede agerikoena da emakumezko protagonistari buruan dabilzkion hausnarketan bitartez egungo gizartea aztertzea eta galdera “desatseginak” mihi-bilorik gabe plazaratzea: zergatik ez diegu bikotekide, senide, koadrila eta bestelakoekiko mendekotasun-harremanei aurre egiten? Zertan datza askatasunaren eta alienazioaren arteko muga?

Zertan zorionaren eta eromenaren artekoa? Zer da bizitza Eros eta Tanatosen arteko harremana ez besterik? Ezinezkoa ote maitasuna eta desioa uztartuko dituen oreka behingoz kausitzea?

Galdera horiek eta beste asko ezkututzen dira narratzailearen hitzen atzean. Berau lehen pertsonan mintzo zaigu, orainaldian sarri, baina baita lehenaldian ere, bere pentsakizunek iraganera jauzi egiten dutenean. Oraina, iragana eta etorkizuna aise bereizteko kapituluaren goiburuetara jo besterik ez du irakurleak; izan ere, -4, -6 eta antzeko minusdunek iragana islatzen dute, 0 zenbakiak oraina eta 0,01ek etorkizuna. Kapituluak ez dira kronologikoki ageri, Claude Simonek, Güell parkeko mosaikoen desordena gogoan, esan zituen hitzei men egin nahian bezala: “memoria plater hautsi bat da”.

Era berean, etxe bateko testuinguru hertsian kokatu behar dugu pertsonaia nagusia. Haren oroitzapenek, aldiz, Euskal Herriko lekuak (Gasteiz, Bilbo...) dituzte hizpide oro har, eta ohikoak dira bertako taberna eta parranda giroak.

Pertsonaiek ez dute izenik eta letra hutsak besterik ez dira kasu guztietan (X eta Y mutil-lagunak, U oso laguna, A eta B lagunak, P Berlingo laguna...), Kafkaren K. ezagunaren zein beste zenbaiten gisara. Aitzitik, esango nuke narratzailearen gurasoak direla hizki hutsezko existentziara mugatzen ez diren bakarrak, izen berezirik izan ez arren eta pertsonaia nagusiak egoera jakinetan dien herra gorabehera “gurasoak” direlako, ama eta aita, ez K. eta L. edo M. eta N. Esan gabe doa pertsona horiek guztiak narratzaile anonimoaren inguruan jira-biraka dabiltzala, amaigabeko zurrumbiloan nola.

Oso gutxi dakigu haiei buruz, eta beste hainbeste esango nuke pertsonaia nagusiaren inguruan, haren bizitza sentimental eta sexualaz kanpoko erreferentzia zuzenak ez baitira arras ugariak: emakumezko gaztea da, Berlin eta Denverren bizi izandakoa, ikasketak bukatu eta Euskal Herrira itzuli dena, Gasteizen masterra egin du... Bere hitzetatik ondoriozta dezakegu, ordea, hiper-arrazionala eta oso kritikoa dela, guztia —gorputzetik hasita— kontrolpean izan nahi duela eta horregatik haserretzen dutela hainbeste mendekotasun egoerek. Badirudi alkoholean eta sexuan bilatzen dituela askatasuna eta zoriona, baina haiekiko dependentziak berak ere amorratzen duela. Ildo beretik, gizonetzkoak *zakil huts*-tzat ditu eta gauza bera dira berarentzat ligatzea eta ehizan aritzea, gizonak *ehizakiak* diren neurri berean...

Erreferentzia faliko zein analek eta beste elementu batzuek (*ama totala, espetxe afektiboa*, neurosia etab.) psikoanaliaren oihartzuna dakarkigute ezinbestean gogora, Freud, Jung, Lacan etab.

Kakarekiko obsesioak (*solo me apetece cagar*) ere bide beretik lerra gintzakeela uste dut.

Laerzioko Diogenes historialari klasikoaren arabera, Heraklitok berak ere kakaz estalarazi zuen bere burua hidropesia sendatzeko. Hortaz, kakan (bizitzaren kakan, desioaren kakan, sexuaren kakan...) murgiltzea ote da Sarriugartek gure arazoak konpontzeko proposatzen diguna? Hori ote bere protagonistak uneoro egiten duena?

Liburuaren egiturari dagokionez, bi zatitan banatuta dago: alde batetik istorio nagusia dugu (7 eta 140 orrialdeen artean), han-hemenka oin-oharrei dagozkien zenbakitxoak dituen. Bigarren zatia zenbakitxo horiei erreferentzia egiten dieten oin-oharrez josita dago (141 eta 173 orrialdeen artean). Azken horiek narrazio nagusia osatzen dute, informazio berria gehitzen, nobela egituratuari antinobelaren ñabardurak ematen, ahots zintzo eta —norberaren buruarekiko— ezin zorrotzagoaren bitartez. Hala eta guztiz ere, irakurlea liburuan atzera eta aurrera egitera derrigortzen dute oin-oharrek eta, batzuetan, haiei dagokien testuaren luzera handiegia denean, narrazio nagusiko haria galtzeko arriskua dago. Beraz, hautu kementsu bezain arriskutsua deritzot liburuaren osaerari. Sarriugartek darabiltzan hizkuntzari eta hizkuntz baliabideei buruz mintzatu nahi nuke orain labur-labur. Gordinak eta zuzenak dira haren hitzak, argiak eta eufemismorik gabekoak, oso gutxitan aditzen ditugunen tankerakoak. Lepoko bateko harritxo preziatuak bailiren, esaldi luze eta konplexuen harian txertatuta daude maiz, zehatzak dira eta indar handikoak. Haatik, nago ez ote diren batzuk luzeegiak eta ez ote duten irakurlearen arreta osoa eskatzen, berorrek behar bezala ulertuko baditu.

Bidenabar, agerikoa da idazle trebeak aditz trinkoekiko (*balirudike, dakuskit, ziostaten...*) eta erritmo aldaketak sortzeko baliabideekiko (errepikapenak eta onomatopeiak, besteak beste) duen atxikimendua; azken horiek, idazlearen ironia eta sarkasmoarekin batera, eragin estetiko eta estilistikoa ere badute.

Gainera, elgoibartarra berritzailea da eta hizkuntzarekin jolastea du atsegin. Horrela, hitz berriak asmatzeko —edota berrasmatzeko— joera antzeman diezaiokegu: *ipurtzulatoratu, zakilseme, gua[i/p]enak, zurlurtuta, ogibide vs.ardobide...* Eskuarki Hiztegi Batuak hobetsi euskaraz idazten badu ere, salbuespenak egon badaude, gaztelaniazko esapideetara jotzen duenean kasu: *con las manos en la masa, hasta en las mejores familias...*; ildo beretik, ez dira ez gutxi heterolinguismoaren adibideak: *shit, making a long story (very) short, wishful thinking, angst...* Horiek ingelesez eta gaztelaniaz daude batik bat, alemanez neurri apalagoan.

Beste alde batetik, esanguratsua da kontakizunak islatzen duen intertestualitate aberatsa, zinemagintzaren esparruan (D. Hopper...) nola margolaritzan (F. Kahlo...), musikan (J. Hendrix...) eta baita literaturan ere: Kerouac, Bukowski, Bradbury, Woolf, Saizarbitoria...

Saizarbitoria aipatu dudala eta, nabarmentzekoa da idazle elgoibartarra bat datorrela Donostiakoarekin zenbait gairen hautaketari dagokionean: desioa, sexua, bikote harreman korapilatsuak, maitasuna vs. maitasun eza etab.

Azkenik, Sarriugarteren lanak hausnarketa metaliterario interesgarriak plazaratzen dizkigu: zer da idaztea mozkorraldi baten erdian eragin askatzailea duen ekintza baino? Protagonistaren idazketa mutilak utzi izanaren ondorio zuzena dela aintzat hartzen badugu, ezinezkoa al da gatazkarik gabeko idazketa irudikatzea? Sormena askatasun une laburren —masturbazioa dateke horietako bat— ondorioa da?

Laburbilduz, lan honen bidez emakumezko gazte baten erraietan eta pentsakizunetan murgilaraziko du Sarriugartek irakurlea. Neurri batean, esan genezake emakume hori gure aurrean odolustuko dela eta “komuneko harraska atergabe mailukatzen dirauen ezin itxitako txorrotak” asaldatuko duela irakurlea, hasieratik amaieraraino asaldatu ere, gure gizarteari eta giza harremani buruz hausnar dezan, galdera zahar nahiz berriei lotsarik, beldurrik gabe hel diezaien.

Patxadaz irakurtzeko liburua da hau, halabeharrezko gordintasuna eta probokazioa direla eta inor hotz utziko ez duena. Montaigne eta Frisch bezain zintzoa da elgoibartarra, gardena, zinez, bere solasa. Aitzitik, zergatik kontatu nahi dizkigu kontatzen dizkigunak? Ba al dago ezkututzen digunik? Bat al datoz liburu honetan kontatzen direnak kontatzen ez direnekin?

Euskarazko ahots berri bat, mundua aztertzeko ikuspuntu berri bat, unibertso literario berri bat, horra hor Sarriugartek bere lehen eleberrian eskaintzen diguna. Ongi etorria bezain oparoa izan dadila bere uzta.

Danele Sarriugarteri elkarrizketa hitzen uberan (eie)

ZERESANA EMATEN ARI DA BERE LEHEN

NOBELA: *ERRAIK* (ELKAR)

Ostirala, 2014-05-23

“...Ez zaigu iruditu oharkabeen pasako den liburu bat denik. Uste dugu zer bait datorrela hemen...”. *Erraiak* (Elkar) nobela amaitu berritan, Sautrela telebista saioko esatariaren hitz horiek etorri zaizkigu burura. Eta jakinminez jo dugu Danele Sarriugarte idazlearengana. Nobelan zehar, ugariak dira erreferentzia musikalak, literarioak eta zinematografikoak. “Agertzen diren idazle, musikari eta filmeen inguruko erreferentziak gustukoak ditut eta gehienak sakonean ezagutzen ditut, baina ez daude denak. Ez dut nire erreferentzia guztien mapa bat egin nahi izan”, Hitzen Uberan egin digun elkarrizketan adierazi digunez.



Gorputza oso erabilgarria eta oso eraginkorra da egonezina islatzeko orduan

Nire ustez ez dago forma eta edukiaren arteko diferentziarik; kontakizuna horrela eman nahi nuen, modu horretan

Ez dut nire erreferentzia guztien mapa bat egin nahi izan

Karga arintze aldera, saiatu naiz komentario umoretsu batzuk egiten liburuan

‘Hausturaren sinfonia’, hori irakurri dugu liburuaren lehen orrian. Eta hain zuzen, hori da zure nobelan kontatzen dena, ezta? Haustura ezberdinen kronika bat dela esan daiteke.

Esan izan dudan bezala, haustura hori aitzakia zen. Krisi momentu bat iradokitzeko. Krisi une horretara eraman duten pasarteetaz hausnartzeko aitzakia. Azken batean, narratzaileak igaro dituen momentu inportante horiek denak, edo gehienak, haustura batean amaitu dira.

Eta esango nuke badagoela haustura bat orokorragoa dena; orain arte protagonistak izan duen jardun moduarekin, pentsatu izan dituen gauzekin. Haustura zehatzez gain, esango nuke badagoela haustura orokor bat.

Protagonistak berak, barne borroka moduko bat duela bere buruarekin.

Bere burua ere kritikatzan du, akaso hipokrita izan delako noizbait, gauza batzuk pentsatu baina beste batzuk egin dituelako... Izan daiteke.

Bulkada baten gisan. Horrela iritsiko zaio irakurleari ‘hausturaren sinfonia’ hori. Istorio ezberdinak korapilatuko zaizkio protagonistari, eta oka egin beharrean ikusiko du bere burua. Nahita idatzia dago horrela, ezta?

Erabaki kontziente bat da, guztiz. Azken batean, hori azaltzeko hartzen duen denbora, asko jota, sei-zazpi ordu izango dira. Nik nire aldetik ahalegin bat egin dut bulkada sentsazio hori mantentzeko. Erritmoa pausatu gabe kontatzeko ahalegina egingo dut.

Leherketa edota oka egiteko une hori akaso exageratua da, baina kontatzeko modu hori bai iruditzen zaidala oso bapatekoa. Nik urtebetean idatzi dut nobela eta sentsazio hori mantentzeko ahalegina egin dut.

Lehen pertsonan idatzia dago eta ikuspuntuarekin ez dirudi zalantza handirik izango zenuenik, ezta? Besteak beste, errealismo hori, gordintasun hori indartzera datorrelako.

Gorputza oso erabilgarria eta oso eraginkorra da egonezina islatzeko orduan. Gainera, liburua idazten ari nintzen bitartean, Euskal Herriko pentsamendu kritikoko master bat egin nuen eta parte hartu nuen Donostiako irakurle eskola feministan. Bietan ere asko landu genituen gorputzaren teoria berriago horiek.

Garbi dago diskurtsoaren zati bat buruan hasten dela, arrazonaltasunerako gaitasun handiagoa duen tokian, baina ezin da ulertu parte hori gorputzik gabe, eta alderantziz. Bi diskurtso horiek batera aztertu nahi nituen.

Gorputzaren gordintasun hori sufrimendurako oso baliagarria dela uste dut eta irakurketa haien eragina islatu egin da kontakizunean.

Ikuspuntua hautatzerakoan ere, ez zenuen dudarik izan.

Mota honetako kontakizun bat lehengo pertsonan bakarrik joan daitekeela uste dut. Ez nuen dudarik egin, ez.

Autobiografikoa ote den, zenbatetan egin dizute galdera hori? Eztabaida horretan ez zinela sartuko adierazi zenuen liburuaren aurkezpenean. Baina hala ere, seguru ikusi duzula zure burua tankera horretako galderen aurrean. Zeren sintoma izan daiteke hori? Alegia, Danele Sarriugarte idazlea nobelako pertsonaiarekin identifikatzeko joera hori?

Azken aldiko joera bat dela esango nuke. Poesian askoz gehiago lotzen da poeta eta bere poema, baina prosan edo narrazioan azken aldiaren aregotu den kontua da, identifikazioarena. Nire biografiaren eta liburuan azaltzen diren gauzen artean egon daitezke ezaugarri komunak eta oso erraza da bat eta bestea lotzea. Autofikzioaren korrontearen hazkuntzarekin batera plazaratu garen idazleoi gehiago galdetu izan zaigu hori.

Eta aparte, morboa bada beste faktore bat. Kontatzen den istorioak elementu morbosoren bat badu, horrek ere aeragotzen du interes hori. Beti dago interesa jakiteko noraino lotuta dagoen idazlea eta nobelan kontatzen dena.

Ez da aparteko ezer gertatzen, baina bai aparta dela kontatzen diren gauza asko. Sexualitateari buruzkoak, adibidez? Hori deigarri egitea ere bada esanguratsu, ezta? Ez dago antzeko adibide askorik gure inguruko literaturan.

Egia da gure gizartean gai batzuetaz hitz egiteko badagoela nolabaiteko lotsa edo. Eta ulertzen dut alde batetik deigarria izatea. Hainbat faktorek eraginda, ziurrenik. Euskal Herrian tradizio kristauak toki handia du, txikia da herri hau eta denok elkar ezagutzea oso erraza da. Baina nik ezagutzen ditudan beste herrialdeetan ere pudorea existitzen da. Dena den, uste dut azkenaldian ari dela zartatzen. Nik irakurtzen ditudan gauza garaikideak ere horra lerratzen direla iruditzen zait.

Ez da aparteko ezer gertatzen, baina bai diferentea dela kontatzeko modua. Edo ez. Baina sentsazio hori ere izan dugu askok. Kontatzeko modua, liburua antolatzeko modua... Akaso horretan ipini duzu arreta berezia? Zer baino nola kontatzeari?

Istorioren horiek eguneroko istorioak dira, gertatzen diren gauzak edozeini gertatzeko modukoak dira. Baina beste prisma batetik analizatzeko saiakera egin dut. Nire ustez ez dago forma eta edukiaren arteko diferentziarik; kontakizuna horrela eman nahi nuen, modu horretan.

Kapituluen antolaketa adibidez, bitxia da.

Egia esan, lehen hiru kapituluaren segida zein izango zen oso argi nuen. Eta beste pieza batzuk horren arabera antolatu nituen. Berridazketan saiatu nintzen pieza denak trinkotzen, edo denari koherentzia ematen. Istorioak horrela egitea eskatzen zidan.

Aipamen literario eta musikal ugari topatuko ditu irakurleak. Pertsonaiaren aldatzea irudikatzea datoz ia gehienetan. Zein neurritaraino eragina dute zuzen erreferentzia horiek guztiak? Edo akaso osagai/langai zirelako batu dituzu Erraiak liburuaren orrietan?

Agertzen diren idazle, musikari eta filmeen inguruko erreferentziak gustukoak ditut eta gehienak sakonean ezagutzen ditut, baina ez daude denak. Ez dut nire erreferentzia guztien mapa bat egin nahi izan. Kantu batzuk helduleku onak ziren kontakizuna abiatzeko. Eta bestetik, letra zati batzuk askoz hobeto adierazten zuten pertsonaiaren unean uneko aldatzea. Horrek ahalbidetzen du ez errepikatzea norbaitek jada oso ondo adierazi duen pentsamendu bat. Erreferentziak dira baina batez ere istorioaren jarioari laguntzeko aukeratuak daude.

Idazketa prozesua, "gozoa"

Umorea ironia edo bien arteko zerbait bada orrietan. Edo hala iruditu ziagu behintzat. Duela gutxi Ana Malagoni egin genion galdera errepikatuko dizugu zuri: umore-ironia dosiak ere badira liburuan. Ironian datza akaso idazleak bere buruarekiko eta lanarekiko behar duen ezinbesteko distantzia?

Bai, eta esango nuke jende guztiari orohar komeniko litzaigukeela jakitea gure burua serioegi hartzea askotan arazo bat dela. Une batzuetan, dohain handia dela zure burua barregarri uzten jakitea. Pertsonaiak kristoren tragedia izan duela dirudi, baina akaso funtsezkoa da islatzea ez dela hainbesterako. Tragediatxo bat da akaso, bai, baina ez dela munduaren akabera eta hori umorearen bidez lortu daiteke transmititzea. Horregatik, karga arintze aldera, momentu batzuetan saiatu naiz komentario umoretsu batzuk egiten liburuan. Batzuk erdi barrez egin dute irakurketa osoa. Baina ez dakizu hori nola neurtzen den.

Azkenik, hauxe izan duzu zure lehen nobela. Nolakoa izan da bidaia? Zenbat izan du buruhaustetik? Eta zenbat gozamenetik?

Idazketa prozesua oso prozesu gozoa izan zen, oso ondo pasa nuen. Une batzuk besteak baino gozoagoak izan ziren baina orokorrean oroitzapen ona dut.

Saria eman zidatenetik, jende bat galdezka nuen, "zer moduz doa liburua?", eta zentzu horretan liburua kaleratzea lasaigarria izan zen niretzat. Hor dago orain, eta niri galdetu beharrean, irakurri eta zuzenean liburuari galdetu.

"Badakit ez dudala berriro horrelako libururik idatziko"

Liburu honek zerbait piztu du hainbat irakurlerengan. Zeresana ematen ari da literatura zaleen artean. Ez dakit zuri ere oihartzun hori iritsi ote zaizun.

Elkarrizketa asko egin dizkidate eta kritikak nahikoa onak izan dira, sare sozialetan egon da mugimendurik... Pozten naiz, eta beti da lagungarri, baina arriskutsu ere izan daiteke. Gehiegi sinesteko arriskua duzu eta etorkizunari begira langa bat jartzen duzu eta akaso langa horrekiko segurtasun falta sor daiteke. Baina bestetik, badakit ez dudala berriro horrelako libururik idatziko.